

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko azaroaren 9a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Iruñea • Karrikiri elkarteak ezagutzak trukatzeko ekimena abiatu du
Angela Moreno • «Grafikaren esparruan mestizajea da nagusi»

«*Begiko mina gentzeko, galtzara zangotik gen eta kinberreala begietan ezer; kan biramon goizartio iduki bear da*»



Antoniaren ikasgaia

«Begiko mina kentzeko, galtzerdia oinetik kendu eta, alderantziz, begietan jarri; han biharamanun goiza arte eduki behar da». Horixe erran du Espartzako Antonia Gartziak zaraitzueraz, eta halaxe bildu du Aitor Arana idazleak Zaraitzuko Hiztegia. Aranak orduak eman zituen Antonia andrearekin hizketan, liburuetatik husturiko hitzen berri galdezka. Horren emaitza 6.000 bat hitzetako hiztegia da. Orain, Antoniak Aranari eman dizkion ikasgaiekin ikastaroa eginen dute zaraitzuarrek, galduriko zaraitzuera ikasteko.



Bera • Kultur produkzioari gainbegiratua

Soziolinguistika Jardunaldiak antolatu ditu hirugarrenez Bidasoa Ikerketa Zentroak



Edurne Elizondo kazetaria EGUNKARIAz eta NAFARKARIAz solastatuko da gaur, 18:30ean, Jamotenean. ● JOXE LACALLE

Eskualdeko historia aztertzeke xedearekin sortu zen orain hiru urte Bidasoa Ikerketa Zentroa. Aurtengo soziolinguistika ikastaroak Nafarroako euskarazko kultur produkzioa izanen du ardatz.

BERTAKO HISTORIA AZTERTU eta zabaltzeko xedearekin sortu zen Bidasoa Ikerketa Zentroa. Baztan-Bidasoako hainbat historialari, soziologo eta bertzelako diziplinatako jendea elkartu, eta eskualdea ardatz duten hainbat ikerketa lan egin di-

tuzte orain arte. Horren emaitza dira, bertzeak bertze, argitaratutako hiru koadernoak (Berako, Lesakako eta Bertizko Jaurerriko historia) eta soziolinguistika jardunaldiak.

Orain dela bi urte eskualdeko egoera soziolinguistikoa azter-

tu zuten jardunaldietan; iaz, euskara lan munduan izan zuten ardatz, eta aurten, Nafarroan egiten den euskarazko kultur produkzioa aztertuko dute. Hiru asteotan mahai-inguruak eta hitzaldiak egingen dituzte gai horren inguruan.

Prentsa, literatura eta herri komunikabideak

Gaur emanen diete hasiera jardunaldiei, eta gainerako hitzaldiak ere ortziraletan izanen dira, Jamotenean, 18:30etik goiti. Prentsa idatziari gainbegiratua emanen diote gaur Edurne Elizondo Euskaldunon Egunkariako kazetariak eta Gontzal Agotek, Nabarra aldizkariako zuzendariak. Elizondo beratarra da sortzez, eta urte mordo darama Euskaldunon Egunkarian. Garai batean NAFARKARIA gehigarriko arduraduna ere izan zen, eta bertzeen artean, gehigarri honen egoera eta nondik norakoak izanen ditu hizpide. Agote, bertzalde, aurten bertan Nafarroan abian paratutako euskarazko hilabete-kariaren inguruan solastatuko da.

Gaur zortzi, hilaren 16an, Joxemiel Bidador filologoa Nafarroako literaturan eman duena aztertuko du. Ezaguna da Bidadorrek egin duen eta egiten duen bilketa lan handia, orriotan bertan argitaratuak asko. Nafarroak izan dituen euskarazko idazleen bi-

lakaera azalduko du Bidadorrek.

Azkeneko emanaldia azaroaren 23an izanen da. Herri komunikabideen inguruko mahai-ingurua antolatu dute, eta Nafarroako lau komunikabidetako ordezkariak izanen dira: Ttipitapa Fundazioa (izen bereko aldizkaria eta telebista kudeatzen dituen), Xorroxin Irratia (Baztan-Bidasoa-Malerreka), Xaloea Telebista (Baztan) eta Euskalerrria Irratia (Iruñerria).

→ Jon Abril

Baztan-Bidasoa

Bidasoa ibaia garbituko dute bihar

IKASTARO BATEN ONDOTIK sortutako Aizkolegi taldearen lehenbiziko ekitaldia izanen da bihar, larunbatarekin, eskualdeko hainbat herritan egingen dena. Bidasoa ibaia hainbertze tokitan garbituko dute. Talde berri honek eskualdean sentsibilizazio eta ingurumen heziketarako egitasmoak landu ditu, eta hau da horietan lehenbizikoa.

Bidasoa ibaia Euskal Herriko ibairik garbiena dela argitu dute hainbat ikerketak, baina industriaren zaborra ez ezik, oraindik anitz dira botatzen diren plastiko eta bertzelako zaborrak. Horiek garbitzea eta jendea zaborrak errekarra ez botatzeko kontzientziatzea bilatzen dute biharko ekitaldi horrekin.

Goizeko 10:00etan elkartuko dira herriz herri ibaia garbitzera joanen diren kideak. Hainbat herri erakunde (kultura, kirola zein gizarte arlokoak) bat egin dute egun honekin. Arizkun, Amaiur, Elizondo, Irurita, Lekaroz zein Etxalarko plaketan elkartuko dira; Arraioztzen, kooperatiban; Oronoz eta Mugairin, elizatarian, Donezteben, eskolan, eta Beran, kiroldegian. 10:30ean erreka garbitzeari ekinen zaio, eta 12:30 bitarte ariko dira herri bakoitzean aukeratutako erreka zatia garbitzen. Tenore horretan, zaborra sailkatu eta gero edukiontzietan sartuko da. Jendeari errekan sartzeko oinetako egokiak janzteko eta eskularruak eramateko eskatu diete antolatzaileek.

→ Jon Abril

zubian barna

BINGEN AMADOZ



Gobernuaren kontra begiratzea. Horrela esaten genion, askoz ere geroago jakin genuenez, hiriko hizkuntza finen estrabismo deitzen zuten ikusmeneko akats arruntetako zenari. Disidentzi politikoa leporatzen genien nora begira zeuden asmatzea zaila egiten zitzaigun haiei. Alegia, elkarriketan sartuta guri begira egon beharrean auskalo norantz begira egoten zirenei.

Gobernuaren kontra mintzatzea, are gehiago aurka jokatzea, legez debekatuta zegoen. Beraz, bakar batzuen pribilegioa zen gutxienez gaizki begiratzen ibili ahal izatea.

Gaur egun gaizki esaka ibil gaitzke, gure arrazoiak eman, arrazoi garbiak gainera... baina, hori bai, gobernuak gorrarena egiten du. Ez entzutearena. Oihuka baldin bagabiltza ere, mandatariak herriari bizkarra eman eta bestaldera begira jar-

Jauntxoan menpe

tzen dira. Entzumena aldeko txaloak aditzeko erabiltzen dute bakarrik. Eta, jakina, horretarako badute beti fidelen korua. Sosaren interesak bultzatuta, koro-antolatzaile dira batzuk, eta morroi ezjakinak, edozertarako prest dira atzetik jarraitzaile.

Oposizioa beti bezala puskatuta. Mila aitzakia dago elkarrekin ez joateko eta, arrazoiak geroz eta sendoagoak izanik ere, horietan pare-parean jarri eta indartsu egiteko modurik ez da. Gobernuak ederki dabilta bereak eta bi egiten kargua uztea zer den jakin gabe. Epaitegiek berretsi dute Komunikazio sailburuak irrati banaketa egitean eginiko okerra. Oposizio alderdiek batzorde berezi batean aztertu zuten Parlamentuan orduan bakarrik susmo txarra zena. Palacios jaunak bere bulegoan segitzen du. Itoizko urtegiak sor litzakeen arriskuak

denen ahotan daude, baina sailburu jaun-andreek ez dute Agoitzen bizitokia. Pitillasko erraustegi proiektuak inguruko biztanleria asaldatu du, baina gobernuak ez dira Murilliten bizi. Ziztada mingarriak ematen dituzte egunero euskaldunon kontra, nafar guztien kulturaren aurka—erasoen zerrenda bukaezina da dagoeneko—, baina ezer ez dute sentitzen erdara hutsean mintzatzen diren horiek. Ez dira Gazteluplazazaleak, ez dira Iruñeko alde zaharzaileak.

Zaldi gainean ikus daitezke. Herrietan igitaia daramate eskuan eta hirian ezpata airean, gurea den guztia suntsitu nahian.

Corellako jauntxoan menpe bizi gara eta gu guztiona da errua. Batzuek alde egiten dutelako eta besteok behar bezala aurre egiten ez diegulako.



urdairen
mintzoa

Xabier Larraburu

Bakterioak

Espazio hutsa ez da existitzen. Inon ere ez. Ez Oteizaren eskulturaren barruan ez eta gure izar eta ondokoaren artean ere. Beti dago zerbaite. Deitu ezazue partikula edo deitu uhina, edo —orain aukera berri hau ere eskaintzen dizute— deitu bakterioa. Orain dela gutxi arte hor kanpoan bakterioak existitzen zirela esatea erokeria zen. Planeten eta beste gorputzen arteko eremua basamortutzat izan dugu beti. Hutsa. Baina partikulen arteko erlazioak ikertu ondotik «hutsa» jada atzera egin duen ideia bat da eta orain kontzeptu horren kontra bakterioak gehitu beharko ditugu. Zientzialariek uste baitute bakterioak esporetan bildutak espazioan bizirik egon daitezkeela, barra-barra. Mendetan bizi estralurtarra nolako zen asmatzen ibilli gara eta askotan gu baino aurreratuagoa izango zen halako «bizi» bat amestu dugu. Ez dakit zer izango den bakterio bat baino aurreratuagoa. Tatanka Yotanka siouxak haritz txikiez esaten zuen antzera esan genezake orain: «Errespetua diet. Neguko ekaitzak eta udako sargoriak tinko aguantatzen dituztelako. Eta, gu ez bezala, berez hazi eta berez loratzen direla dirudielako». Espora txiki horien pareko espaziontzirik ez da sekulan garatuko. Horrelako «aurrerapenak» eta «teknologiak» beti izango dute ezezaguna egiten zaigun zer edo zer. Berriki jakin dugu errusiarrek lupu pilo bat uharre batean zutela gordetik eta orain dela hamaika urte bera akatzeko saioa egin zutela eta horretarako infernu txiki bat antolatu zutela lurraren azpian eta gero estali. Urteak pasatu ahala egindako ikuskapen guztiek lupua beraien esporen barruan oraindik bizirik dagoela ziurtatu dute. Lupuaren punta-puntako teknologiak infernua aurreikusitako eta salbamendu kapsula eraiki dezake, punta-puntako materialekin. Gero kanpoko egoeraren berri emango dizkioten sensoreak piztu ditzake eta mendeak iraun dezakeen loaldi batera joan daiteke lasai askoan. Mendeak eman ditzake infernua ametsetan. Errespetua diet. Gu ez bezala, berez hazi eta berez loratzen direla dirudielako ●

Iruñea ●

Batek zeruko izarrak irakurtzen irakatsiko du. Besteak etxeko iturriak konpontzen. Hirugarrenak, arropa lisatu gabe nola bizi. Hori eskaintzen du Karrikiriren ekimenak, ezagutza trukatzeko.

TRUKE SAREA EZ DA EUSKARAZ mintzatzeko jendea elkartzen duten ekimen horietakoa. Trukerako saioak euskaraz egiten dira eta euskara ikasten ari direnek ere lekua dute bertan, baina helburua denok ditugun trebetasun eta ezagutzak elkarri erakustea da, ez hizkuntzarekin lotutakoak bakarrik.

Dena dela, aukera paregabea da euskaltegietan ikasten dena praktikan jartzeko (gutieneko gaitasuna eskatzen da, 8. urrasetik goitikoa). Eta adin guzietako euskaldunek har dezakete parte.

«Euskaldun guzien aisialdia aberasteko eta harremanak trinkotzeko aukera bat da», erran du Rosa Ramos Karrikiriko kideak. «Behar hori badagoela uste baitugu. Euskaldunek, berriek zein zaharrek, ez dute aukera askorik aisialdian euskaraz egiteko».

Ez da denboraren bankua

Truke sarean ez dira zerbitzuak trukatzeko. «Ez da denboraren banku bat», esplikatzen du Rosa Ramos Karrikiriko kideak. «Denboraren bankuetan, adibidez, nik zuri telefona konpon-

Karrikiri elkarteak ezagutzak eta trebetasunak euskaraz trukatzeko ekimena abiatu du



Karrikiriren truke sarean ezagutza guzietan dute lekua, baita musean jokatzen jakiteak ere. ● JOXE LACALLE

tzatzen dizut eta zuk niri ordainean kristalak garbitzen dizkidazu. Hemen ez. Sare honetan ezagutzak trukatzeko dira. Nik zerbaite egiten dakit eta hori sareari ematen diot. Nik dakidana irakasten dudanean bospasei lagun egon daitezke ikasten, baina horiek ordainean ez didate niri beste ezagutzarik irakatsi behar. Trukerako sarean ikasten dena ez da ez diruz ez zerbitzu batez ordaintzen. Dakiguna beste irakasten ordaintzen da».

Sarean sartu nahi duenak fitxa bat bete behar du, gutienez eskaera eta eskaintza bana egin. Ondoren, Karrikirikoek eskaerak eta eskaintzak bateratzen saiatuko dira. Eta, gero, saioen iraupena, maiztasuna, ikasle kopurua eta gainerako

ezaugarriak gaiarekin interesatuta daudenek hitzartuko dute. Karrikirikoek badakite ekimen ederra bezain zaila dela, baina euren asmoa da Eguberrietan pare bat saioekin hasi eta mar-txa hartzea.

Hamabostean behin Euskalerrira Irratian tartetxo bat utziko diete, abisuak emateko: «Iturgintza ikastaroa antolatu da eta

beste bi lagunentzako toki dago» eta gisakoak. Gainera, barne buletin bat izanen da.

→ Asier Azpilikueta

Karrikiri elkarteak

Xabier karrika, 2bis
Arratsaldero, 17.00etatik 19.00etara
karrikiri@teletel.es
948222589

Zer irakats dezaket nik?

BIZIKLETAN NOLA IBILI, ELIKAGAIAK POTETAN NOLA SARTU, ESKULANAK nola egin, masajea nola eman, etxeko entxufeak nola paratu, kanberaz arrantzuan nola egin, musean nola jokatu... Truke sarean ezagutza mota guzietan dute lekua. Baten batek pentsatuko du irakasteko deus ere ez duela, baina uste hori ustela da, Karrikiriko aburuz, denok baitugu trebetasunen bat edo gure bizitzan izaniko esperientziaren bat besteendako interesgarria izanen dena.

Ohiko ikastaroetatik haratago joan nahi dute Karrikirikoek. Jendeak hala eskatuta, betiko Internet, yoga eta margolaritza saioak antola daitezke, baina beste inongo egitarautan lekurik ez dutenak bultzatu nahi dituzte.

«Problema ez da ez dakigula ezer», dio Rosa Ramos karrikiriko kideak. «Asko dakigu, baina gure ezagutza eta trebetasun asko oso pribatuak dira, eta ez gara ausartzen hori jendeari erakusten. Sare-rako jendeari gustura erakutsiko diozun hori aukeratu behar duzu».

UDAZKENEKO ESKOLAK 2001

IRITSI DA BOSGARREN BOTEREA
azaroak 23, 24 eta 25 / ORION

GAZTE HIZKERIA ETA ARGOTAK
azaroak 14 / 19:00etan
Iruñeko Gazterlaren Etxea


GIZARTE IHESA
azaroak 26, 27, eta 28 / 17:00-21:00
IHSaren Aurkako Batzorde Hiritarrean.

OSASUN BITARTEKARIEN ELKARTZEA
abendua 1 eta 2 / Tuterako aterpean

AFEKTIBITATE ETA SEXU HEZKUNTZARAKO TREBAKUNTZA IKASTAROA
azaroak 12, 19, 21 eta 26 / ANDRAIZEN

INFORMAZIORAKO:
Zangoza k.30 p.k.:31005 IRUÑEA
TEL:948-234819 / FAX.:948-245627

ANTOLATZAILEA:



CAJA RURAL DE NAVARRA

Egunkaria

Joxerra Sola

Fitxa

43 urte
Erronkarin jaioa
Bigarren Hezkuntzako irakaslea



Eskolan erabiltzeko

OTSAGABIKO INSTITUTUAN LAN EGITEN du, 12 eta 14 urte bitarteko gazteekin. Lanaldi erdia euskaraz egiten du eta beste erdia gaztelaniaz. Makina bat lekutatik pasatu zen euskara ikasteko. Duela hamar urtetik euskaraz irakasten du.

Ez du ez erronkarierarik ez zaraitzerarik zuzenean entzun. «Zaraitzua ia ia galdu dugu hemen ibarretan», dio. «Zaraitzuerarekin izan

dugun harreman bakarra testu bidezkoa izan da. Irakurri ditugu Garraldatarrek eta Zoilo Mosok idatzituzena. Baina bakarrik dira eskuizkribu batzuk. Zaraitzua erabiltzeko eta pixka bat praktikatzeko interesgarria iruditu zitzaigun

ikastaroa antolatzea. Ea hiztegi aldeetik edo zerbait ikasten dugun gero eskolan bertan edo gure artean erabiltzeko ahalik eta gehien».

Hala ere, zaraitzua berpiztea zaila ikusten du Joxerrak. «Hilen da, baina ea arrastoren bat uzten duen».

MIKEL SAIZ

Marina Zubiri

Fitxa

32 urte
Espartzan jaio eta bizi
Lehen Hezkuntzako irakaslea



Amoionisiaren bidetik

ERRONKARIKO HAUR TTIKIEKIN EGITEN du lan Marinak. Zaraitzuar peto-petoa da, euskaldun berria da, noski; gurasoek ez baitute euskaraz egiten. Euskara ikasi zuen gustukoa zuelako, eta orain lanean erabiltzen du.

Etxean zaraitzua entzuna du amonaren ahotik. 1993ko *Nafarroako euskaldunen mintzoak II* liburuan ageri den Dionisia Garate da bere amona. «Oso gutitan egiten zuen be-

rak», dio Marina. «Ez etortzen zen etortzen zizkion, baina nion Artolarekin izaten. «Zaraitzua ez dagoelako ez dagoelako», dio Marina. «Oso gutitan egiten zuen be-

adierazi du Marinak. «Zaraitzua berpiztea oso zaila da. Ibar honetan geroz eta bizilagun gutiago gaude, eta guti horien artean euskaldunak are gutiago gara. Nahiko lan izan den dugu euskara batua berreskuratzen. Hori lortuz gero, ongi. Zaraitzuar batua aberasteko balioko digu».

MIKEL SAIZ

Lourdes Zoko

Fitxa

32 urte
Iruñean jaio eta
Otsagabian bizi
Kultura dinamizatzailea



Hiltzear dagoelako

16 URTE ZITUENEAN-EDO HASI ZEN EUSKARA ikasten, «motibazio handiarekin», Lourdesek berak dioenez. Batez ere, bere lan harremanetan egiten du euskaraz. Zaraitzu eta Erronkariko kultur dinamizatzailea da, eta orpo orpo lan egiten du euskara teknikari Jone Usozekin.

Lourdesek ez du familian inoiz zaraitzuerarik entzun. Gurasoak Otsagabikoak dira, baina Iruñera joan zi-

ren lan egitera. Hantxe jaio zen Lourdes. Eta gero, gurasoen kontrako bidea egin zuen, duela lau urte Otsagabira itzuli baitzen lanera. Eta bere atzetik, gurasoak.

Lourdesek uste du ez duela zaraitzua ikasiko, ez behintzat hitz egite-

ko gai izateko adina. Baina ziur da nozio batzuk eskuratuko dituela. «Zaraitzua ikasi nahi dut gurea den zerbait delako, hiltzear dagoelako eta, besterik gabe, zerbait berria ikasteko», erran du. «Erromantizismo apur bat dago horretan».

MIKEL SAIZ

Eta ele kau nola erraten da kemen?



Otsagi herria, Zaraitzun. MIKEL SAIZ

Aitor Arana idazleak *Zaraitzuko Hiztegia* egin du, eta zaraitzuar batek esanari jarraituz, horretan landuriko materialarekin ikastaroa antolatuko du datozen hiru larunbatetan. Zaraitzua berreskuratzeko ez bada, euskara batua aberasteko balioko du bederen.

AITOR ARANA BELDURTUTA DAGO ZARAITZUERA ikastaroan berrogei bat lagunek eman dutelako izena. Ikastaro bat emateko jende gehiegi dela uste du. Ez zuen halako erantzunik espero. Are gehiago, *Zaraitzuko Hiztegia* filologoendako eta bera bezalako euskaltzaleendako idatzi du. Hiztegia ez dago pentsatua zaraitzuarrek zaraitzua berreskuratzeko hiztegi gisa. Hala ere, hiztegia argitaratzearen lehen ondorioa bihar abiatuko den ikastaroa da.

Denetara 30 ikasgai izanen ditu ikastarok. Zaraitzuerari dagozkion aldaerak, esamoldeak, hiztunei eginko elkarrizketen entzumenak eta ariketak izanen dira programaren ardatzak. Aranak ikastarorako propio prestatu duen ikasliburua argitaratuko dute, eta, gainera, Nafarroako Gobernuak beste ikastaroren bat egin nahi du Iruñean.

Antonia Gartzia hitzunenaren laguntzaz

Aitor Aranak lan mardula egin du hiztegian. Dokumentazioko lehendabiziko fasean, Zaraitzuko euskarari buruz zegoen bibliografia sakon aztertu zuen. Bibliografiaren barenen ardatzak dira zaraitzueraz idatzitako dauden testu urriak.

Bigarren fasean, bibliografian eta testuetan aurkituriko hitz zerrenda egiaztatuko egin zuen zaraitzueraz mintzo den emakume bakanetako batekin, Antonia Gartzia Lopere-

na Espartzakoarekin. 1913an jaioa eta Ezkarozeraz ezkondua, Antonia Gartziak 25 urte arte euskaraz hitz egiteko aukera izan zuen nahikoa sarri, eta 60 urtez ia inoiz mintzatu gabe eman arren, oso hitzuna ona da, bere buruan zaraitzua bizirik daukana.

Horrela, bada, Aitor Aranak 6.000 hitz inguru bildu ditu bere hiztegiari, eta ahal izan duen guzietan hitz bakoitzarekin adibide praktikoa jartzen saiatu da, zentzua hobe uler dadin.

Antonia Gartzia bezalako beste hiruzpatalau hitzun bizirik dauden arren, Zaraitzua hila dagoela erran daiteke, aspaldi utzi bai-

tzion komunikabide izateari. Badirudi 1860-70 urteetan 3.100 euskaldun bazirela Zaraitzun; 1935ean 1.540; eta 1972an, 327. Hala ere, euskara ez da erabat galdu Zaraitzun; izan ere, egun zaraitzuarren %20 inguruk batuaz omen daki. Haur eskolatuen artean A eredu da nagusi, baina azken matrikulazio kanpainan D eredu gailendu da: sei haur euskarazko eredu eta haur bakarra A eredu. Zaraitzu eremu mistoan dago. Euskara berreskuratze bidean da. Eta orain, zaraitzua, ezagupen bidean.

Asier Azpilikueta

Aitor Arana

ZARAITZUERA HIZTEGIKO EGILEA

«Zaraitzua hilda dago, baina ez da ezinezkoa ikastea»

LEGAZPIN JAIO ZEN 1963AN. HAMASEI URTE zituelarik idazten hasi zen, eta egun, idaztetik bizi da. Haur literatura idazten du gehienbat, baita helduendako ere, eta pornoa ez du baztertzeko. Itzultzaile lanean ere ibilia da. Euskara da bere pasioa. Egundako Nafarroako euskalki hilekin liluratzen da.

Esperanto - Euskara hiztegia egin duzu.

Eskuz egin dago. 30.000 hitzeko munstroa da. Orain ordenagailuan sarzeten ari naiz. Presarik ez dago.

Eta erronkarieraz zein zaraitzueraz hitz egiteko gai zara.

Jakin badakit, baina ez dut batere aukerarik hitz egiteko. Orain arte, Antonia Gartzia aurkitu eta harekin asko ikasteko eta benetan hitz egiteko aukera izan dut. Eta beste hitzun bat ere agertu zaigu. Hiztegia egiten ari ginenean, Mari Cruz Esarteren berri izan nuen. Irunberrin bizi da, baina Jaurrietakoa da sortzez. Ikaslibururako lana Mari Cruz eta Antoniaren ekarpenekin egiten ari naiz.

Zer izan da zuretako Antoniaren hitz egin ahal izatea.

Nik erronkarieraren eta zaraitzueraren oihartzunak beti paperean jaso ditut. Hitzunen bat aurki nezakeela jakin nuenean, iruditu zitzaidan oso interesgarria izango zela hiztegia horrekin aberastea, hitzun bati hitzak galdetzea eta lekukotasunak jasotzea. Horrela, Antoniaren eta bion arteko lankidetzak sortu zen; oso azkar adiskidetasun bihurtu zena. Lana oso atsegina izan da. Euskalki bat ikasten duzenean, euskara bera aberasten duzu, modu pertsonalean ikaragarri, gainera, euskalkietan aldaerak-eta egoten direlako, arau ezberdinak, funtzionamendu ezberdinak. Niretzat oso bixia izan da zaraitzueraren sinkopak (*abere > abre*) eta erakusleetak (*k' protetikoa (kau, kori, kura)*) entzutea.



IRAKI URANGA

Paperean oso polita da, baina are politagoa entzundakoa. Horrez gain, ez nuen pentsatzen adin horretako emakume batekiko adiskidetasuna izan nezakeenik.

Idatzia duzu zaraitzua aspaldi utzi ziola komunikabide izateari. Baina, behintzat, zu Antoniarekin izan zaren momentu horietan komunikabide izan da.

Bai, baina... ez. Errealitateari ez zaizkio begiak itxi behar. Zaraitzua hilda dago. Niri egundoko pena ematen dit. Koldo Zuazok bere euskalkien azken mapan zaraitzua margotuta dauka, eta hori irreal da. Asko sentitzen dut, baina hala da. Hitzun bat gelditzen den bitartean euskalkia bizirik dagoela esan dezakezu, baina, nire ustez, komunikabide izateari uzten dion hizkuntza edo dialektoa ez dago bizirik. Pertsona baten baitan dago, eta nolabaiteko bizikera bada hori. Eta, aizul, zergatik ez?, izan daiteke ikastaro honetan bikote bat, elkarrekin bizitzeko proiektua

duena, eta ikasten duena eta erabakitzen duena etxean zaraitzueraz egitea; eta, orduan bai, egongo litzateke zaraitzua bizirik etxe horretan. Zorionez, ongi dokumentatuta dago euskalkia. Eta ez da ezinezkoa ikastea.

Zuk erronkariera ikasi duzu, zaraitzua ikasi duzu. Hurrengoa, aezkera?

Egia esan, orain harrapatu nauzu Izarreibarko hiztegia bukatzen. Gares inguru horretan ez dago hiztunik. Beraz, testuek esaten dutenari amen. Oso testu guti dauka, gainera. Baina bila hasita, aurkitu ditut testu berriak. Oso pozik nago. Hiztegi polita aterako da, 2.000 bat hitzeko. Hurrengo urtean argitaratuko dugu.

Gipuzkoan ez al dago halakorik ikeritzeko?

Egia esan, guretzat, giputzentzat, hain arrunta da gipuzkera, sorpresa handirik ez dugula aurkituko. Hala ere, badira zenbait. Nik, adibidez, 18 urterekin jakin nuen Legazpiko euskararen nor-nori adizkietan plurala ez zela erabiltzen.

Nafarroako Gobernuari, bistan denez, euskalkiak aztertzea eta gordetzea interesatzen zaio. Baina euskara biziaren ez du horrela jokatzeko. Zein iritzi duzu horren inguruan?

Munduko gauzarik naturalena da euskara ongi beureganatu duen garestarrak Garesko euskara nolakoa zen jakin nahi izatea. Horretarako baliabideak argitaratu behar dira. Nafarroako Gobernuak euskalkiekiko jarrera egokia azaltzen badu, hori ona da, besterik gabe. Euskara biziari dagokionez, garai hobekak etorriko dira. Nafarroako Gobernuak berezkoa izango du jarrera hori aldatzea, Nafarroan euskararen aldeko jarrera nagusituz baitoa. Hori ona da. Momentuan momentuko Gobernuak euskalkien alde edo batua- ren alde egiten duen, dena ongi etorria izan dadila, herritarra baita erabaki behar duena. Garestarrak Izarreibarreko euskara ikasi nahi badu, ikas dezala. Eta betoz liburuak Nafarroako Gobernutik, Eusko Jaurlaritzatik, edo Frantziatik. Baina betoz.




Unetxoa azaroaren seian

Hamaiketakoa. Astearte goiza. Hamaiketakoaren ordua. Betiko kafetegia, lantokitik, Unzutik, gertu, Udaletxe plaza inguruan. Patata tortilla pintxoa, ohi baino idorragoa. Serafinen ahotsa, ohi baino lodiagoa: «Pedro Javier, gutxi gorabehera, zenbat lagun bildu dira?». Segundo amaiezina igaro zen lankideak erantzun zion arte. Amaiezina Serafinentzat, amaiezina Pedro Javierrentzat, amaiezina niretzat —tortilla zati bat zintzurtean kateatu zitzaidan eta—. Azkenean, Pedro Javierrek «E, berehunen bat lagun» lakoniko zalantza-kor batez erantzun zuen.

Edaria. Kafeinagabe urrupadaz liseri-aparatuan barna abiarazi nuen lursagar arrautzopil zatiki errebolatua —hori da hori esaldi biribila. **Aingeru Epaltza** ematen dut. Sasoi literario ezin hobean nago. **Pedro Pejenauteren** diru laguntza murrizketengatik ez balitz, soldata igoera eskatuko nuke—. Serafin listua irensten sumatu nuen. Hain berezkoa duen ahots lodia zertxobait argalduta entzun zen, lankideak eskaini kopurua-ren hoztasuna epeltzen saiatu zelarik: «Nolanahi ere, giroa, bero». Pedro Javierrek Osasunako jokalaria ohi **Javier Minaren** *dribbling*-erako gaitasun falta bera erakutsi zuen: «Berotasuna baino gehiago, jakin-mina da nagusi bertaraturiko hiritarren artean». Kafesnea kontrako eztaurretik sartu zitzaidan. Ezbeharren eragilea ez zen dioxosozko tortilla pusketa izan, baizik eta barregura.

Laguntasuna. Batera egin nuen barre eta eztaul, aurrean nuen mahaiaren



Eva Sannum, bere mutil-lagunarekin.



Sarasate pasealekua.

zikintzeko. Corok, kafetegiko jabeak, begirada zorrotzez zigortu ninduen. Ez-tulak zikindutakoak ez zion axola. Barreak lohiturikoak bai. Corok eta biok aspaldidanik ezagutzen dugu elkar. Aspaldidanik dakigu nondik hartzen dugun arnas. Berak aski ongi daki nolakoa naizen. Nik aski ongi dakit nolakoa den. Ez dago zertan **Eduardo Gilbera** edo **Patziku Perurena** bezain azkarra izan horretarako. Cororen kafetegian Cordovillakoa da saltzen den egunkari bakarra —Diarioa, besterik ez balego bezala—, **Jaime Ignacio del Burgorena** da bezeroei irakurgaitzat eskaintzen

zaien aldizkari bakarra —inori ez diot gomendatuko *Navarra en Marcha* erosterik, baina bai, berriz, irakurtzerik, esperientzia antropologiko ahantzezina baita—, eta **Serafin Ramirezek** zuzenduriko Radio Nacional de España en Navarra da entzuten den irrati bakarra.

Zirrara. Astearte goizean, Serafinek Jaime Ignaciori enegarren elkarrizketa egin ordez —fisikaren, matematikaren, estatistikaren, arrazoiaren lege guztien aurka, Radio Nacional de España en Navarra sintonizatzen dudan aldi oro, erregionalismoaren ideologia elkarriz-

ketatzen ari dira— **Eva Sannumen** mutil-lagunak Foru Erkidegora egin bisitaldiaren zuzeneko kontakizuna egin zuen, eta, espero ez bezala, saioan agerian geratu zen porrot egin zuela foru lehendakari **Miguel Sanzek** nafarrek modeloaren senargaiari harrera beroa egin ziezaioten plazaraturiko dei instituzionalak, ibiltokiko —pasarela, Elhuyarren arabera— profesionalaren bikotekidea Nafarroako Jauregia bisitatzen ari zelarik, Sarasate pasealekuan ez zegoela inor. «Ez dakit zer gertatu zaidan», eskatu nion barkamena Corori. Horrelako unetxoengatik ez balitz...



panpilonia zirkus

Enrike Diez de Ultzurrun

Pintada galduak

San Jose plazan gaua beti oso beltza izan da eta karrikako argiak oso motelak. Sebek, gainera, harriz hautsia zuen, bezperan, katedralaren ondoko farola. «*Pintura ekarrik duk?*», galdetu zion Migelek Seberri. «*Bai, motel*». «*Eta, brotxa?*». «*Jakina*». «*Ba, ederki izorratuko diagu Jaime zeri hori. Kolera ederra hartuko dik, goizean etxetik ateratzean*», erran zuen nerbiostuxe Migelek. Izan ere, San Jose plazan —bi urte geroago, 1967an, Iruñeko ikastolak hartuko zuen etxebizitzaren ondoan—, Jaime Cerrazo Aizpun bizi zen, *Movimiento-ko Jefe Local* haietako bat, alegia. Migelek, bada, koinatu margolariari eskatutako pintura beltzaren potoan brotxa sartu eta idazten hasi zen: *G-O-R-A E-U-S...* «*Hi, kaguen la ordiga*», moztu zion Sebek.

«*Zetarekin, Zeta letrarekin*». «*Hago isilik, orain eserekin duk*». «*Ezetz*», «*Baietz*»... Afera ezin moldatu zebiltzala, plater itxurako jeneral baten gorra ikusi zuten irudi beltz ibilkari baten gainean, Nabarria aldetik zetorrela eta, zirt-zart, ihesari eman zioten Redin aldera, ohartu gabe destenorez agertutako irudi hura Leandro zela, hau da, Tres Reyes hoteleko atezaina, uniforme jantzita, etxerako bidean. Koinatuaren pintura harresitik beheiti bota zuten.

Tamalez, ia ez da pintada historikorik gorde Iruñean. Gehienak ezabatu dituzte, edo, bertzenaz, denboraren joanak eta euriak zer errana ere izan dute horretan. Dena dela, oroimenean gelditu diren artean, honatx, Franco hil berrian, Bigarren Zabalguneko bazterrak astindu

«ENCIERROS EN BLANCO Y NEGRO»



PSOEren pintada bat, 1977ko entzierro batean.

zituena bat: *Irakasleak nahi ditugu. Ez faxistak*, Aita Eskolapioen ikastetxeko paretan egin. Urteen joan-etorriaren gainetik iraun zutenen artean, bi dira aipagarri:

Udaletxe Plazan, artean Casa Seminario berria eraiki gabe zegoela, egon zen pintada-marrakzi antinuklearra, eta, batez ere, Germani buruzko handi hura, Txoko tabernaren atzeko aldeko paretan, noizean behin margoberritzen zutena.

Gainerako pintada historikoak azken urteotako hirigintzak jan ditu. Horrela, Sanduzelai eta Arrotxapea auzo obreroetan etxe berriak eraikitzearekin batera, lantegi, nabe eta barrakoi zahar aunitz bota dituzte, eta, horien artean, baziren aspaldiko gertakarien berri ematen zituztenak: Potasas, Superser, EKAK eginikoak, *Montejurra, socialismo y autogestion*, edo ORTek sinatutako beste hau: *Eso, eso, eso, Iturbe al Congreso*, edo, gaur egun, jendeari etorkizuna igartzen dion hark eginikoa: *LAIA. Ez gaituzte disolbatuko*. Bistan denez, ez zuen asmatu.

Angela Moreno

ARTISTA ETA OKUPGRAF EKIMENENKO NAFARROAKO KOORDINATZAILEA

Okupgraf, Euskal

Herriko arte grafikoari buruzko topaketa, urrian jarri zen abian

Nafarroan, eta oraindik zortzi erakusketa ikusi ahal dira ekimen horren baitan, Iruñean, Uhartan eta Lizarran. Hazten eta

zabaltzen ari den esparrua da arte grafikoarena gure herrialdean.

«Grafikaren esparruan mestizajea da nagusi»

soslaia

Artista asko bezala, Nafarroatik Leioako Arte Ederretako Fakultatera ikastera joandako beste gazte bat izan zen Angela Moreno, 80ko hamarkadaren hasieran. Teknika grafikoetako lizentziadun, doktoretza ikasketak egiten hasi zen gero, eta hainbat lekutan irakasle izan eta gero, La Lagunako unibertsitatera ailegatu zen irakasle gisa.

Kanariar Uhartetan hainbat urte eman eta gero, Nafarroara itzuli zen Moreno, eta 1995. urtean grabatu lantegia zabaldu zuen Uhartan, Zubiarte izenarekin. «Artisten neurriko lantegia da, bakoitzak zer nahi duen erran eta hori ematen saiatzen bainaiz». Artista ugari igaro da Zubiartetik.

Lantegiko kideek hainbat erakusketa egin izan dituzte, taldeka, eta bakarka ere bai. Angela Morenok berak bere obrak erakutsiko ditu Iruñeko Pintzel galerian, gaurtik aurrera, Okupgraf ekimenaren baitan. Hil osoan izanen da zabalik, *Etxekoan istorioak* izenburupean.

hurbiltzea da asmoa; esparru horrek oraindik badu bere burua aldarrikatzeko beharra?

Ez dut uste zentzua hori denik. Kontua ez da aldarrikatzea, esparru honetan egun egiten ari dena erakustea baizik. Nik uste dut jendeak gero eta ideia argiagoa duela arte grafikoaren inguruan, erakusketa asko egiten direlako. Grafika, gainera, pintura eta eskulturaren zirkuitu berean sartzen ari da. Mestizaje garaia bizi dugu eta, ondorioz, artearen diziplinen arteko mugak ez daude lehen bezain zehaztuak. 70 edo 80ko hamarkadan galeria monografikoak baziren grafikaren esparrua lantzeko, baina egun hori ez da gertatzen.

■ Diziplinen arteko mugak deuseztatzeak, beraz, on egin dio grafikari?

Nik uste dut baietz, denoi egin digu mesede. Oro har, artista gehienek eskura dituzten medioak erabiltzen dituzte, tradizionalenetik teknologiarik berrienera, eta guztiak dira

artista bakoitzak duen proiektua gauzatzeko tresnak. Hemendik eta handik hartzen dute artistek, pintura, eskultura edo grabatua egiten ari diren planteatu gabe. Egia da, hala ere, medioek lan egiteko era bat ezartzen dutela eta horrek arrastoa uzten duela.

■ Duela hainbat urte beste diziplinen azpitik jartzen zuten askok arte grafikoak; hori erabat aldatu da?

Bai; grafikak duen abantaila da edonoren eskura dagoela eta oso demokratikoa dela, erraztasunez zabaltzen ahal delako; horregatik, beti jorratu den esparrua da arte grafikoarena. Garai batean, bai, beste diziplinen azpitik jartzen zuten, baina egoera hori erabat aldatu da, artistek gero eta gehiago erabiltzen dituztelako medio horiek, haien bidez obrak jen-

dearengana errazago hurbiltzeko.

■ Nafarroan gertatu den jauzi kualitatibo eta kuantitatibo horren atzean zer dago, hau da, zerk eragin du grafikaren zabaltze hori?

Duela hogeita bat urte Nafarroan grabatu egile oso gutxi zegoen, eta egiten zuten obra oso teknikoa zen. 80ko hamarkadaz geroztik, berriz, jende asko Euskal Herriko Unibertsitatean ikasten hasi zen, eta bueltan, hemen hasi ziren lanean. Horrek mugimendua sortu zuen grafikaren inguruan, eta esparru hori ulertzeko era askotako moduak bazirela agerian gelditu zen. Arte Eskolaren lana ere hor dago. Gure herrialdean ez da tradizio handirik izan grafikaren inguruan, eta nik uste dut hori ona izan dela, bide berriak ikertzeko aukera

ahalbidetu duelako. Etorkizun handia du grafikak Nafarroan, nire ustez.

■ Nolakoak dira bide berri horiek; zeintzuk dira grafikaren joerak egun?

Lehen esan bezala, mestizaje garaia da gurea, eta, ondorioz, denetarik ikus daiteke. Badira teknika tradizionalak eta prozedura garaikideak nahastan dituzten artistak, bakarrik argazkigintzaren prozesuak erabiltzen dituztenak, baina, batez ere, nahasketa handia dago tekniken eta lan egiteko moduen artean. Kolorea, bai, funtsezkoa da, oso agerikoa, bai eta erliebeak eta ehundurak ere. Horiek erretxina eta antzeko elementu berrien bidez lortu dira. Laburbilduz, kolorea, nahasketa eta euskarri handiak dira egungo joera nagusiak.

→ Edurne Elizondo



● MIKEL SAIZ

«80ko hamarkadaz geroztik jende asko EHUn ikasten hasi zen, eta bueltan, hemen hasi ziren lanean; horrek mugimendua sortu zuen grafikaren inguruan»



Nafar Kronika

Martxelo Sotes

Chronicon

Bai, Chronicon; izan ere, *Kronika* hitza txiki gelditu zaigu gaurkoa jorrazteko. Jaun-andreok, zorionekoak gu, Espainiako printzeak Nafarroan bisita egin duelako. Ufa! Ufa... Uf... Espainiako printze deituko diogu, Nafarroako legitimistei min ez ematearren; horixe izan zen, gainera, Francok Juan Carlosendako asmatu zuen titulua, egun modatik kanpo badago ere. Antzinako erregeak, *Jainkoaren graziarengatik* ziren errege. Egungoa, Francori grazia egin ziolako omen dago. UPNk eta PSNk «Vianako printze» deitzen diote behin eta berriz. Kontraesan-galdera: Nafarroan Printzea bai baina erresuma ez? Antzinako erreinua Foru Erkidego *moderno* batekin ordezkatu baziguten, ez dago Vianako printzearentzat tarterik. Besteak beste erregeordea eduki beharrean Gobernadore Zibila baita ukatu, esate baterako. Sekulako *aurre-rapausoa* hori ere.

Aztoratuta ibili dira foru agintariak protokolo kontuekin. Pentsa zenbaterainokoak izanen ziren horien buruhausteak, non Euskara, oharkabean akaso, sartu duten euren predikuetan, modu xumean bada ere. Printzeak etorri behar Sanzek euskaraz *irakur* dezan... Ene!

Pozik egonen da Sanz Jauna. Eva Sannum sugetzar mediatikoaren zurrumbilaoa bete-betean sartu da Nafarroan: Nafarroa modan dago! Azken uneko monarkiazaleei ongi iruditzen zaie printzea errege odola ez duen batekin ezkontzea: elkarrekin maiteminduta badaude, aurrea. Behingoatik ultramonarkikoekin bat nañor. Printze baten zeregin bakarra agintzen dioten printzesarekin ezkontzea eta dinastia ziurtatuko duen belaunaldi oparoa mundura ekartzea baino ez da. Gainerako guztia berak hautatzen ahal du: opor amaigabeak non eta no-rekin pasatu, egunero berandu iratzarri, nahi adina amorante izan, itxurak gordez... baina emaztea ez. Eta monarkiaren arau sistema gus-tuko ez badu, abdikatzeko dauka. Azkenean erregeek eta printzeek beraiek zapuztuko dute monarkia. Monarkikoek urteetan gorde dituzten ohitura eta lege burugabeak -sistemak pulamentu gutxi badu, ezinbestean arauak burugabeak izanen dira- jarraitzen ez dituzten baka-rrak errege eta printzeak dira. Agian, erregeek eurek asmatutako arauak errespetatzen ez badi-tuzte, Historiak irakatsi digun bezala, iraultzare-kin edo gabe, beraiek izanen dira berriz ere Errepublikak ekarriko dituztenak. Eskerrik asko.

gure aukerak

MUSIKA

- **Berriozar:** Ufestuek 'rockanrolin' taldeak kontzertua emanen du gaur Herria tabernan, 21:00etan.
- **Bakaiku:** Buitraker taldeak gazte-txean joko du gaur, 22:00etan.
- **Iruñea:** Aitzol eta bere lagunek poesia musikatuak eta Bizkaiko koplak zaharrak kantatuko dituzte igandean Txantreako Herriko tabernan, 19:30ean.
- **Azkoien:** La Polla, Kaotiko eta Falta de Riego taldeen kontzertua izanen da bihar frontoian, 22:00etan.
- **Iruñea:** La Fuga taldea Cotton Club tabernan izanen da bihar, 23:30ean.
- **Burlata:** Kizio taldeak bere bigarren diskoa aurkeztuko du aste-arte Black Rose tabernan, 20:30ean.
- **Barañain:** Danburia taldeak osteguneko joko du, 20:00etan, kultur etxean.

ANTZERKIA

- **Etxarri-Aranatz:** Vaiven taldeak *Lotsa gabe* antzezlan eskainiko du gaur, 22:00etan, kultur etxean.
- **Iruñea:** Bihar, 12:00etan, Taun Taun taldeak *Txio txioka* haur-erentzako antzezlan emanen du Gaiarren antzokian.
- **Iruñea:** Tanttaka taldeak *Errudun jaiok* antzezlan taularatu-tuko du bihar, 23:00etan, Gaia-erre antzokian.
- **Olazti:** Igandean Sambhu Teatro taldeak *Klin, Klan, Klown* ikuskizuna antzeztuko du, 18:00etan, pilotalekuan.
- **Bera:** Gilkitxaro antzerki taldeak *Trokolotarrak* lana taularatu-tuko du igandean, 20:00etan, kultur etxean.

HITZALDIAK

- **Elizondo:** Pedro Esarte historialaria *Navarra 1512* bere liburuz

solastatuko da gaur, 19:30ean, Arizkunenean.

- **Iruñea:** Kirmen Uribe *Bitartean heldu eskutik* izenburuko poesia errezitaldia emanen du bihar, 17:00etan, Txantreako Herriko tabernan.

ERAKUSKETAK

- **Mutiloagoiti:** Iruñeko Arte Eskolan ikasketak bukatu dituzte-rik kultur etxean paratu duten olio lanen erakusketa izanen dira gaur, 20:00etan, euren lan-naz hitz egiteko. Erakusketa as-teazkena arte izanen da ikus-gai.

IKASTAROAK

- **Tutera:** Beterri peñak antolatu-ta, mikologia ikastaroa egingen dute asteburu honetan. Gaur, 20:00etan, Daniel Palacios Euskal Herriko perretxikoen inguruan mintzatu-tuko da Rua

zentroan. Bihar, Moncayo mendira joanen dira perretxi-kotara. 948-411658 telefonoan eman izena.


BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Zaldiko Maldikon larun-bateko arratsaldea jokoan igaroko dute. Musa, partxisa, tribiala eta xakea euskaraz 17:30etik goiti.
- **Iruñea:** Abesbatza taldea sortze-ko asmoz, asteazkenean Iruñe-zar euskaltegian biltzen dira, 20:00etan (948-220824).
- **Noain:** Gau eskolak (948-317144) monitore eskaldunak behar ditu boluntario gisa taile-rrak aurrera ateratzeko.

BESTAK

- **Iruñea:** Bihar eta etzi sanmarti-nak ospatu-tuko dituzte. Igandean eskulangintza feria handia izanen da plazan.

Artea ulertu eta gozatzeko bidean



● PABLO S. QUIZA

Hitzaldi zikloa

Iruñean, Erraldoien txokoa, 20:00etan

ASTELEHENA 12

«XIX. mendearen bukaerako artearen berritapena eta bere ondorioak»

Ismael Manterola, Arte Historiako irakaslea (EHU)

ASTEARTEA 13

«II. Gerla Handiaren ondorengo artearen norabide berriak»

Ana Olaizola, Arte Historiako irakaslea (EHU)

ASTEAZKENA 14

«Oteiza eta Txillida»

Imanol Agirre, Artearen Didaktikaren irakaslea (NUP)
Jabier Moreno, Eskultura irakaslea (EHU)

OSTEGUNA 15

«Artearen praktika gure garaiotan»

Miren Jaio, arte kritikaria

«Artearen hedapena teknologia berrien eraginaren aurrean»

Miren Eraso, Artelekuko dokumentazio eta argitarapenetako arduraduna.